



II. ATALA  
BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Zallako Udala

Onestea lanpostuen zerrendaren aldaketa mantentze-lanetako teknikari lanpostua sortzeko.

Zallako Udalak, 2023ko abenduaren 1ean eginiko ezohiko osoko bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen:

Estaturako gaikuntza duten toki-administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 3.3.d.6 artikuluan xedatutakoari jarraikiz, honako hau egin da:

LEGEKOTASUNARI BURUZKO PROPOSAMEN-TXOSTENA

I. Txostenaren xedea eta espedientean jasotako dokumentazioa

Zallako Udaleko lanpostuen zerrendaren aldaketari buruzko txostena egin da. Aldaketa hori Giza Baliabideetako teknikariak proposatu zuen 2023ko urriaren 18ko txostenean.

Proposatutako aldaketetatik, Udalbatzak dagoeneko bi erabaki ditu dagoeneko (osagarriak eguneratzea adostutako soldata-igoeren arabera, eta 13. lanpostuaren egoera lanpostu hutsera aldatzea).

Aldaketa horretatik abiatuta, Udalbatzan erabaki zen 20. lanpostua (mantentze-lanetako teknikari laguntzailea) sortzea, honako proposamen honen arabera:

20	Mantentze-lanetako teknikari laguntzailea	Kontratudun finkoa	Administrazio Berezia/ Zerb. Bereziak	Hutsa Lehiaketa	D/C2	Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, Oinarrizko Hezkuntza Orokorrean edo LHn graduatua 1.	1	2	Partziala (% 25)	16	B gidabaimena
----	---	--------------------	---------------------------------------	-----------------	------	---	---	---	------------------	----	---------------

Proposamen-txosten honen helburua da aldaketa hori egitea.

II. Zuzenbideko oinarriak

1. Lanpostuen zerrendaren kontzeptua (aurrerantzean «LZ»)

Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren (EPOE) testu bategina onesten duen urriaren 30ko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 74. artikulua honako hau ezartzen du:

«Administrazio publikoek lanpostuen zerrenden bitartez edo antzeko antolaketa-tresnak erabilia egituratuko dute beren antolamendua».

Bestalde, Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legeak (EEPL) honako hau ezartzen du 45.1 artikuluan:

«Lanpostuen zerrendak euskal administrazio publikoek beren barne-egiturak arrazionalizatu eta ordenatzeko baliatzen dituzten tresnak dira, baita langile-beharrizanak zehaztu, lanpostuetan jarduteko betekizunak definitu eta lanpostu bakoitza sailkatzeko ere, efikaziari, efizientziari eta antolaketarako arrazionaltasunari buruzko irizpideen arabera».

LZ administrazio-egintza da (AGEn epaia, 2014ko otsailaren 5ekoa). Horrek ondorioak ditu onespren prozedurari dagokionez. Jarraian azalduko da.



## 2. Lanpostuen zerrendaren negoziazioa

EPOEren 37. artikulua honako hau ezartzen du:

«Administrazio publikoetako bakoitzak dituen eskumenei lotuta, bakoitzak bere eremuan eta kasuan-kasuan legez dagokion irismena izanik, ondorengo zerrendan jasotako hauek izango dira negoziazio-gaiak:

(...)

- c) Irizpide orokorrak finkatzeko arauak, gai hauek direla eta: enplegu publikora iristea, karrera egitea, lanpostuak betetzeko moduak, lanpostuak sailkatzeko sistematik eta giza baliabideak antolatzeko planak eta planifikazio-tresnak.
- d) Jarduna ebaluatzeko orduan, irizpide eta mekanismo orokorrak finkatzeko arauak.
- e) Gizarte-aurreikuspen osagarriko planak.
- f) Barne-sustapeneko eta prestakuntzako planei eta funtsei buruzko irizpide orokorrak.
- g) Gizarte-prestazio eta klase pasiboen pentsioak zehazteko irizpide orokorrak.
- h) Eskubide sindikalei eta parte-hartzeari buruzko proposamenak.
- i) Gizarte-ekintzari buruzko irizpide orokorrak.
- j) Laneko arriskuen prebentziorako arautegian halaxe ezarrita daudenak.
- k) Funtzionarioen lan-baldintzetan eta ordainsarrietan eragina dutenak, baldin eta horiek arautzeko lege-mailako arauak izatea beharrezkoa bada.
- l) Enplegu publikoaren eskaintzei buruzko irizpide orokorrak.

(...)

Bestalde, EEPLren 191. artikulua honako hau ezartzen du:

191. artikulua. — *Negoziazioa antolatzeko printzipio orokorrak*

1. Lege honen ondorioetarako, hau da negoziazio kolektiboa: euskal enplegatu publikoaren lan-baldintzen zehaztapena negoziatzeko eskubidea izatea. Euskal administrazio publikoetako negoziazio kolektiboak printzipio hauek bete beharko ditu:

(...)

- c) Derrigortasun-printzipioa. Enplegu publikoaren oinarriko araudian sartutako gaiak negoziatuko dituzte beti administrazio publikoek.

Zehazki, gai hauek negoziatuko dira, dagokien esparruan, administrazio publiko bakoitzaren eskumenak aintzat hartuta eta kasu bakoitzean legez egokitzen den irismenarekin:

(...)

12. Lanpostuen zerrendak edo tresna baliokideak.

(...)

Espedientean jasota dago negoziazio-mahaiaren akta, non proposamen hori jorratu zen.

## 3. Aldaketaren edukiari dagokionez

EPOEn eta EEPLn xedatutakoa betetzen da. EPOEren 74. artikuluan eskatzen du LZk honako hauek jasotzea:

«gutxienez, honako hauek jaso behar dira: lanpostuen izena, lanbide-sailkapeneko taldeak, hala dagokionean, atxikita dituzten kidegoak edo eskalak, lanpostuak betetzeko sistematik eta ordainsari osagarriak. Erabilitako tresna horiek publikoak izango dira».

Bestalde, EPOEren 45. artikulua honako hau ezartzen du:

1. Lanpostuen zerrendak euskal administrazio publikoek beren barne-egiturak arrazionalizatu eta ordenatzeko baliatzen dituzten tresnak dira, baita langile-beharrianak zehaztu, lanpostuetan jarduteko betekizunak definitu eta lanpostu bakoitza sailkatzeko ere, efikaziari, efizientziari eta antolaketarako arrazionaltasunari buruzko irizpideen arabera.



2. Lanpostu-zerrendek hauek hartuko dituzte barruan, batera edo bereizita: aurrekontuan zuzkidura duten egiturako lanpostu guztiak, funtzionario, langile lan-kontratudun eta behin-behineko langileentzat erreserbatuta daudenak.
  3. Lanpostuen zerrendak eta haietan izandako aldaketak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dira, edo kasuan kasuko lurralde historikoko aldizkarian foru-aldundietakoak edo toki-erakundeetakoak direnean. Argitaratu eta hurrengo egunean hasiko dira ondorioak izaten lanpostuen zerrendak, non eta berriaz beste data bat zehazten ez den. Hori guztia, lanpostu-zerrenden barruko datuen transferentzia bermatze aldera.
  4. Une bakoitzean errazago ezagutu dadin zein den lanpostu-zerrenden egoera, bai eta zerrenda horien kudeaketa errazteko ere, enplegu publikoaren eskumena duten organoek aldi-aldi eguneratuko dute zerrendon gaineko informazioa. Halaber, administrazio bakoitzeko egoitza elektronikoa agertu beharko dira bateratuta, gardentasunez, eta etengabe eguneratuta.
  5. (...)
  6. Nolanahi ere den, lanpostu-zerrenden bitartez sortu, kendu edo aldatuko dira lanpostuak. Era berean, egitura organikoa aldatu nahi izanez gero, aldi berean aldatu beharko dira dagozkien lanpostuen zerrendak edo haien ordezkotresnak.
- Apartatu honetan xedaturik dagoenerako, aldaketa hauek ez dira kontuan hartuko: eduki funtzionala ukitu gabe, lanpostuak adskribatuta dauden sail edo organoen izenari bakarrik eragiten diotenak.
7. Lanpostuen zerrendak aurrekontu-aurreikuspenetara egokituko dira, halako moldez, non ezingo duten barnean hartu lanposturik baldin eta haren dotazioari ezin bazaio eutsi dagokion ekitaldirako aurrekontu-plantilletan aurreikusitako kredituekin.
  8. (...)
  9. Foru- eta toki-administrazioetan eta Euskal Herriko Unibertsitatean, haien arauen arabera horretarako eskumena duen organoak onartuko ditu lanpostuen zerrendak.

#### 46. artikulua. — *Lanpostu-zerrenden edukia*

1. Lanpostu-zerrendek datuok adieraziko dituzte, nahitaez, lanpostu bakoitzeko:
  - a) Lanpostuaren izena eta lanpostu bakoitzetik dagoen dotazio kopurua.
  - b) Zer sail edo zentro organikotara adskribatuta dagoen.
  - c) Funtzionarioentzat erreserbatutako lanpostuei dagokienez, sailkapen profesionaleko talde edo azpitaldeak eta zer kidego, eskala edo beste sistematarako adskribatuta dauden, hala badagokio. Ez dago eragozpenik lanpostuak talde, azpitalde, kidego edo eskala batera baino gehiagotara adskribatzeko.
  - d) Langile lan-kontratudunentzat erreserbatutako lanpostuei dagokienez, bakoitzaren talde profesionala.
  - e) Hornitzeko-sistema dela lehiaketa, dela izendapen askea eta, hala badagokio, zein administrazio publikotako langileei irekitzen zaien hornikuntza hori.
  - f) Ordainsari osagarriak, lanpostuari lotuak.
  - g) Lanpostuaren hizkuntza-eskakizuna eta, hala badagokio, derrigortasun-data.
  - h) Dedikazio-araubidea
  - i) Lanpostuaren izaera berezia ala normalizatua den.
2. Lanpostu-zerrendetan zehaztuko dira, era berean, dena delako lanpostuan jarduteko eskatzen diren berriazko betekizunak, hala badagokio.
3. Lanpostu-zerrenden bitartez bakarrik ken daitezke lanpostuak edo dotazioak lan-kargak aztertzeo prozesuen ondorioz, langileen ordezkartzarekin negoziatu ondoren,
4. (...)



Horren harira, honako hausnarketa hauek egin dira aldaketa-proposamenaren aldeko ebazpena emateko:

- Aurrekontuei dagokienez, Udaleko kontu-hartzaileak, Giza Baliabideen teknikariak bere txostenean planteatutako aldaketa guztiei dagokienez, aldeko txostena egin du.
- Lurralde Sailari atxikitzea proposatzen da.
- Lanpostuaren lan- eta estatutu-izaerari dagokionez, Giza Baliabideen teknikariak adierazi du lan-izaerakoa izan behar duela. Espedientean dagoen lanpostuaren deskribapenean, lanpostuaren zereginak deskribatzen dira. Ildo horretan, Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legeak honako hau ezarzen du 44. artikuluan:
  1. Funtzionario publikoak ariko dira, eskuarki, euskal administrazio publikoetako lanpostuetan.
  2. Oro har, euskal administrazio publikoetan, funtzionario publikoentzat erreserbatuta daude funtzio hauek bereziki: administrazio publiko bakoitzaren ahal publikoak egikaritzen edo interes orokorrak zaintzen zuzenean nahiz zeharka parte hartzea eskatzen dutenak. Funtzio horien artean daude, besteak beste:
 

(...)
  3. Lanpostu-zerrendetan aurreikus daiteke langile lan-kontratudunak aritzea lanpostu jakin batzuetan, baina esparru hauetan bakarrik:
 

(...)

Proposatutako fitxa jarraituz, eta aintzat hartuta mantentze-lanetako arduradunak da-goeneko funtzionario publiko izaera duela, proposatu da lanpostuak funtzionario izaera izatea.

- Lanpostu berriaren izena, lanbide-sailkapeneko taldea, kidegoa eta eskala, hornidura-sistema eta ordainsari osagarriak gehitu dira.
- Lanpostuaren hizkuntza-eskakizuna gehitu da.
- Arduraldi-araubidea gehitu da.
- Lanpostuaren fitxa jarraituz, proposatu da eskakizun berezikoa ez den postua izatea.
- B gidabaimena izateko berariazko baldintza gehitu da.
- Publizitate printzipioa betetzeko, akordioa Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, Udalaren iragarki-taulan eta Udalaren egoitza elektronikoan argitaratu beharko da, bateratuta, gardentasunez eta etengabe eguneratuz.

Plazaren kodea	Izena	Funtzionarioa Lan-kontratu-duna	Kidegoa Eskala Azpieskala	Horniduraren egoera	Taldea	Titulazio akademikoa	Plazak	Eskakizuna	Derrigor-tasun-data	Lanaldia	Lanpostu-mallako osagarria	Berariazko osagarria	Berariazko osagarria: arduraldi berezia	Oharra
20	Mantentze-lanen teknikari laguntzailea	Funtzionarioa	Admin. Berezia/ Zerb.bereziak	Hutsa Lehiaketa	C2	Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako gradua, Oinarriko Hezkuntza Orokorra edo LH 1.	1	2		Partziala (%25)	16			Bereizi gabeko lanpostua. Lurralde Arloari atxikita. Berariazko eskakizuna: B gidabaimena

### 3.2. Hizkuntza-politikaren arloan nahitaezko irizpena

Espedientean Hizkuntza Politika Sailaren nahitaezko irizpena ageri da, eta aldekoa da.

86/1997 Dekretua, apirilaren 15ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioetan Euskararen Erabilera Normalizatzeko Prozesua arautzen duena. 23. artikuluan honako hau xedatzen du:

1. Euskal herri-administrazioek dagokien txostena eskatuko diote Hizkuntza Politikarako Sailordetzari, Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legearen 97.5 atalari jarraituz. Beharrezkoa izango da, beraz, txosten hori izatea lanpostuetan derri-



gortasundatak eta hizkuntz eskakizunak izendatzeko edozein erabaki hartu aurretik.

(...)

- 3. Proposamena eta aurreko atalean jakinarazitako dokumentazioa jasota, Hizkuntza Politikarako Sailordetzak txostena osatuko du horretaz hilabete baino lehen.
- 4. Hizkuntza Politikarako Sailordetzak egindako txosten hori jaso ondoren, herri-administrazioaren gobernu-organoak hizkuntz eskakizunak eta, hala badagokio, derrigortasun-datak ezartzeko erabakia hartuko du. Era berean, horren arabera lanpostu-zerrendan egin beharreko aldaketak egitea onartuko du.

Irizpenak honako gomendio hau egiten du:

«Igarotako derrigortasun-data ezarri nahi bada, Udalaren Osoko Bilkurak aldaketak onartzen dituen eguneko data jartzea gomendatzen dugu, (uuuu/hh/ee) formatuarekin. Horrela, etorkizun batean egin litezkeen arazoak ekidingo lirateke»

#### 4. Lanpostuen zerrendaren aldaketa onesteko organo eskuduna

Lanpostuen zerrendaren aldaketa onesteko organo eskuduna Osoko Bilkura da, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 22.2.i) artikulua xedatutakoaren besean.

#### 5. Onestea eta argitaratzea

Administrazio-egintza aintzat hartuta, hau da, lanpostuen zerrendaren aldaketa onestea, ez du jendaurreko izapiderik behar. Osoko Bilkurak behin betiko onetsiko du, eta argitaratzen denean jarriko da indarrean.

Nolanahi ere, EEPLren 45.3 eta 45.4 artikuluek xedatutakoari jarraikiz:

3. Lanpostu-zerrendak eta haietan izandako aldaketak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dira, edo kasuan kasuko lurralde historikoko aldizkarian foru-aldundietakoak edo toki-erakundeetakoak direnean. Argitaratu eta hurrengo egunean hasiko dira ondorioak izaten lanpostu-zerrendak, non eta berariaz beste data bat zehazten ez den. Hori guztia, lanpostu-zerrenden barruko datuen transferentzia bermatze aldera.

4. Une bakoitzean errazago ezagutu dadin zein den lanpostu-zerrenden egoera, bai eta zerrenda horien kudeaketa errazteko ere, enplegu publikoaren eskumena duten organoek aldi-aldi eguneratuko dute zerrendon gaineko informazioa. Halaber, administrazio bakoitzeko egoitza elektronikoan agertu beharko dira bateratuta, gardentasunez, eta etengabe eguneratuta.

Aurreko oinarrien babesean, Udaltzako Osoak.

### HONAKO HAU EBATZI DU:

- 1. Zallako Udaleko lanpostuen zerrendaren aldaketa onartzea, 20. zenbakiko lanpostua sortzeko honako egitura honi jarraikiz:

Plazaren kodea	Izena	Funtzionarioa Lan-kontratuduna	Kidegoa Eskala Azpieskala	Homiduraren egoera	Taldea	Titulazio akademikoa	Plazak	Eskakizuna	Derrigortasun-data	Lanaldia	Lanpostu-mailako osagarria	Berariazko osagarria	Berariazko osagarria: Lanaldi berezia	Oharrak
20	Mantentze-lanen teknikari laguntzailea	Funtzionarioa	Admin. Berezia/ Zerb.bereziak	Hutsa Lehiaketa	C2	Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako gradua, Oinarrizko Hezkuntza Orokorra edo LH 1.	1	2		Parziala (% 25)	16			Bereizi gabeko lanpostua. Lurralde Arloari atxikita. Berariazko eskakizuna: B gidabaimena

- 2. Aurreko aldaketarekin bat etorritik Zallako Udaleko lanpostuen zerrendaren eguneratzea honako modu honetan:



Plazaren kodea	Izena	Funtzionarioa Lan-kontratuduna	Kidegoa Eskala Azpieskala	Egoera Hornidura	Taldea	Titulazio akademikoa	Plazak	Eskakizuna	Derrigortasun-data	Lanaldia	Lanpostu-mailako osagarria	Berariazko osagarria	Berariazko osagarria: arduraldi berezia	Oharrak
1	Idazkaria	Funtzionarioa	Estatuko G.F	Hutsa Lehiaketa	A/A1	Unibertsitate-gradua. Lizentzia edo baliokidea	1	4	1995/01/31	Osoa	27	30.701,21	3.194,01	
2	Administraria HAZ	Funtzionarioa	Adm. Orok./ Administratiboa	Hutsa/ Lehiaketa	C/C1	Batxilergoa, teknikaria, L.H.2 edo baliokidea	1	2	2009/03/26	Osoa	19	18.037,51		
3	Administrazio orokorreko teknikaria (AOT)	Funtzionarioa	Adm. Orok./ Teknikoa	Hutsa/ Lehiaketa	A/A1	Unibertsitate-gradua. Lizentzia edo baliokidea	1	3	2022/12/31	Osoa	21	24.403,53		
4	Administraria	Funtzionarioa	Adm. Orok./ Administratiboa	Hutsa/ Lehiaketa	C/C1	Batxilergoa, teknikaria, L.H.2 edo baliokidea	1	2	2022/12/31	Osoa	19	18.038,21		
5	Kontu-hartzailea	Funtzionarioa	Estatuko G.F	Hutsa/ Lehiaketa	A/A1	Unibertsitate-gradua. Lizentzia edo baliokidea	1	4	1995/01/31	Osoa	27	31.287,13	1.636,45	
6	Admin./Diruzaina	Funtzionarioa	Adm. Orok./ Administratiboa	Beteta/ Lehiaketa	C/C1	Batxilergoa, teknikaria, L.H.2 edo baliokidea	1	2	2013/09/04	Osoa	19	19.251,53		
7	Administraria	Funtzionarioa	Admin. Orok./ Administratiboa	Hutsa Lehiaketa	C/C1	Batxilergoa, teknikaria, L.H.2 edo baliokidea	1	2	1994/12/31	Osoa	19	18.038,16		
8	Ark. teknikoa	Funtzionarioa	Admin. berezia/ Teknikoa	Hutsa/ Lehiaketa	B/A2	Arkitektura teknikoa edo baliokidea	1	3	2009/03/26	Osoa	21	26.444,12		
9	Administrari laguntzailea	Funtzionarioa	Adm. Orok./ Laguntzailea	Hutsa/ Lehiaketa	D/C2	Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako gradua, Oinarrizko Hezkuntza Orokorra edo LH 1.	1	2	2013/09/04	Osoa	19	17.189,24		
10	Udalt. lehen agentea	Funtzionarioa	Adm.Berez./ Zerb.berezia	Hutsa/ Lehiaketa	C/C1	Batxilergoa, teknikaria, L.H.2 edo baliokidea	1	2	2013/09/04	Osoa	19	25.036,83		B gidabaimena
11	Udaltzaina	Funtzionarioa	Adm.Berez./ Zerb.berezia	Beteta/ Lehiaketa	C/C1	Batxilergoa, teknikaria, L.H.2. edo baliokidea	2	2	2013/09/04	Osoa	15	21.345,40		B gidabaimena
12	Udaltzaina	Funtzionarioa	Adm.Berez./ Zerb.berezia	Beteta/ Lehiaketa	C/C1	Batxilergoa, teknikaria, L.H.2. edo baliokidea	3	2	2022/12/31	Osoa	15	21.345,40		B gidabaimena
13	Udaltzaina	Funtzionarioa	Adm.Berez./ Zerb.berezia	Hutsa/ Lehiaketa	C/C1	Batxilergoa, teknikaria, L.H.2. edo baliokidea	1	2	2022/12/31	Osoa	15	21.345,40		B gidabaimena
17	Mantentze-lanen arduraduna	Funtzionarioa	Admin. Berezia/ Zerb.bereziaz	Hutsa Lehiaketa	D/C2	Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako gradua, Oinarrizko Hezkuntza Orokorra edo LH 1.	1	2		Osoa	19	25.252,39		B gidabaimena
18	Elektrikaria	Kontratudun finkoa	Admin. Berezia/ Zerb.bereziaz	Hutsa Lehiaketa	D/C2	Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako gradua, Oinarrizko Hezkuntza Orokorra edo LH 1.	1	2		Osoa	16			B gidabaimena



Plazaren kodea	Izena	Funtzionarioa Lan-kontratuduna	Kidegoa Eskala Azpieskala	Egoera Hornidura	Taldea	Titulazio akademikoa	Plazak	Eskakizuna	Derrigortasun-data	Lanaldia	Lanpostu-mailako osagarria	Berariazko osagarria	Berariazko osagarria: arduraldi berezia	Oharrak
19	Igeltseroa	Funtzionarioa	Admin. Berezia/ Zerb.bereziaz	Hutsa Lehiaketa	D/C2	Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako gradua, Oinarriko Hezkuntza Orokorra edo LH 1.	1	1		Osoa	16	25.252,39		B gidabaimena
21	Ehorzlea	Kontratudun finkoa	Admin. Berezia/ Zerb.bereziaz	Beteta Lehiaketa	E/LG	Eskolako ziurtagiria	1	1	2022/12/31	Osoa	11			B gidabaimena
20	Mantentze-lanen teknikari laguntzailea	Funtzionarioa	Admin. Berezia/ Zerb.bereziaz	Hutsa Lehiaketa	C2	Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako gradua, Oinarriko Hezkuntza Orokorra edo LH 1.	1	2		Partziala (% 25)	16			Bereizi gabeko lanpostua. Lurralde Arloari atxikita. Berariazko eskakizuna: B gidabaimena
22	Liburuzaina	Funtzionarioa	Admin. Berezia/ Zerbitzu bereziak	Beteta Lehiaketa	B/A2	Unibertsitate-gradua. Diplomaturua edo baliokidea	1	3	1999/03/04	Osoa	20	24.688,60		
23	Atezaina	Funtzionarioa	Adm. Orok./ Menpekoa	Beteta/ Lehiaketa	E/LG	Eskolako Ziurtagiria	1	2	1999/03/04	Osoa	11	17.971,82		
24	Informatikaria	Funtzionarioa	Adm. Berezia/ Zerbitzu bereziak	Hutsa Lehiaketa	A/A1	Unibertsitate-gradua. Lizenzia edo baliokidea (informatikan goi-ingeniaria edo baliokidea)	1	3	2009/01/31	Osoa	21	28.048,89		
25	Kultura teknikaria	Funtzionarioa	Adm. Berezia/ Teknikoa	Hutsa Lehiaketa	B/A2	Unibertsitate-gradua, diplomaturua edo baliokidea	1	3	2022/12/31	Osoa	21	23.616,31		
26	Administraria	Funtzionarioa	Admin. Orok./ Administratiboa	Hutsa Lehiaketa	C/C1	Batxilergoa, teknikaria, L.H.2. edo baliokidea	1	2	2022/12/31	Osoa	19	16.667,27		
27	Udal. ofizialordea	Funtzionarioa	Admin. Berezia/ Ikuskapena	Hutsa/ Lehiaketa	C/C1	Batxilergoa, teknikaria, L.H.2. edo baliokidea	1	2	2022/12/31	Osoa	19	24.788,94		B gidabaimena
28	Administrazio orokorreko teknikaria (AOT)	Funtzionarioa	Admin. Orok./ Teknikoa	Hutsa Lehiaketa	A/A1	Unibertsitate-gradua. Lizenzia edo baliokidea	1	2		Osoa	21	24.403,53		
29	Antolaketa-teknikaria (Enplegua-GGBB)	Funtzionarioa	Admin. Berezia/ Teknikoa	Hutsa Lehiaketa	B/A2	Unibertsitate-gradua, diplomaturua edo baliokidea	1	3	2022/12/31	Osoa	21	22.829,10		
30	Admin. lag. HAZ	Funtzionarioa	Admin. Orok./ Laguntzailea	Hutsa/ Lehiaketa	D/C2	Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako gradua, Oinarriko Hezkuntza Orokorra edo LH 1.	1	2	2022/12/31	Osoa	18	16.137,81		
31	Admin. lag. HAZ	Funtzionarioa	Admin. Orok./ Laguntzailea	Hutsa/ Lehiaketa	D/C2	Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako gradua, Oinarriko Hezkuntza Orokorra edo LH 1.	1	2	2022/12/31	Osoa	18	16.137,81		
32	Arkitektoa	Funtzionarioa	Adm. Berezia/ Teknikoa	Hutsa/ Lehiaketa	A/A1	Arkitekтура edo baliokidea	1	4	2022/12/31	Osoa	23	31.094,81		
33	Ark. teknikoa	Funtzionarioa	Admin. Berezia/ Teknikoa	Hutsa/ Lehiaketa	B/A2	Arkitekтура teknikoa edo baliokidea	1	2		Osoa	21	26.371,55		
34	Topografiako ingeniari teknikoa	Funtzionarioa	Admin. berezia/ Teknikoa	Hutsa/ Lehiaketa	B/A2	Unibertsitate-gradua, ingeniari-tza teknikoa edo baliokidea	1	2		Osoa	21	22.829,10		



Plazaren kodea	Izena	Funtzionarioa Lan-kontratu-duna	Kidegoa Eskala Azpieskala	Egoera Hornidura	Taldea	Titulazio akademikoa	Plazak	Eskakizuna	Derrigortasun-data	Lanaldia	Lanpostu-mailako osagarria	Berariazko osagarria	Berariazko osagarria: arduraldi berezia	Oharrak
35	Energia- eta ingurumen-kudeaketako ingeniari teknikoa	Funtzionarioa	Admin. Berezia/ Teknikoa	Hutsa Lehiaketa	B/A2	Unibertsitate-gradua, ingeniari teknikoa edo baliokidea	1	3		Osoa	21	22.829,10		
36	Administraria	Funtzionarioa	Admin. Orok./ Administratiboa	Hutsa Lehiaketa	C/C1	Batxilergoa, teknikaria, L.H.2. edo baliokidea	1	2	2022/12/31	Osoa	19	15.744,20		
37	Igelt. ofiziala	Funtzionarioa	Admin. Berezia/ Zerbitzu Bereziak	Hutsa Lehiaketa	D/C2	Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako gradua, Oinarriko Hezkuntza Orokorra edo LH 1.	1	1		Osoa	18	17.318,63		B gidabaimena
38	Igeltseroa	Funtzionarioa	Admin. Berezia/ Zerbitzu Bereziak	Hutsa Lehiaketa	D/C2	Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako gradua, Oinarriko Hezkuntza Orokorra edo LH 1.	1	1		Osoa	18	15.350,70		B gidabaimena
39	Liburuzaina	Funtzionarioa	Admin. Berezia/ Zerbitzu bereziak	Hutsa Lehiaketa	B/A2	Unibertsitate-gradua, diplomatura edo baliokidea	1	3	2022/12/31	Osoa	21	23.616,31		
40	Toki sustapen ekonomikoko eta enpleguko teknikaria	Funtzionarioa	Admin. Berezia/ Teknikoa	Hutsa Lehiaketa	B/A2	Unibertsitate-gradua, diplomatura edo baliokidea	1	3	2022/12/31	Osoa	21	24.403,53		
41	Komunikazio, gardentasuna eta herritarren partaidetzako teknikaria	Funtzionarioa	Admin. Berezia/ Teknikoa	Hutsa Lehiaketa	B/A2	Unibertsitate-gradua, diplomatura edo baliokidea	1	3	2022/12/31	Osoa	21	24.403,53		
42	Komunikazio, hezkuntza eta haurren teknikaria	Funtzionarioa	Admin. Berezia/ Teknikoa	Hutsa Lehiaketa	B/A2	Unibertsitate-gradua, diplomatura edo baliokidea	1	3	2022/12/31	Osoa	21	22.829,10		
43	Administraria	Funtzionarioa	Adm.Orok./ Administratiboa	Hutsa Lehiaketa	C/C1	Batxilergoa, teknikaria, L.H.2. edo baliokidea	1	2	2022/12/31	Osoa	19	17.712,23		
44	Liburutegi eta Artxiboko laguntzailea	Funtzionarioa	Adm. berezia/ zerbitzu bereziak	Hutsa Lehiaketa	C/C1	Batxilergoa, teknikaria, L.H.2. edo baliokidea	1	2	2022/12/31	Osoa	19	17.712,23		

3. Ebazpen hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea, eta ohiko errekurtsioak eskaintzea.

4. Lanpostuen zerrenda eguneratua Udalaren egoitza elektronikoak argitaratzea.

5. Ebazpena Enplegu eta GGBB teknikariari eta Komunikazio eta Gardentasun teknikariari helaraztea.

#### BOZKETAREN EMAITZA

Gehiengo soil onetsi da.

— Zalla Bai: Alde 5.

— Grupo Nacionalistas Vascos - Eusko Abertzaleak: Abstentzioak 6.

— Euskal Herria Bildu: Alde 1.

#### Kontra egiteko bideak

ebazpen honen aurka Administrazioarekiko Auzi Errekurtsioa aurkeztu ahal izango duzu(e)la Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren dagokion Administrazio Auzietako Epaitegian, Administrazio Auzietako Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko



29/1998 Legeak bere 8. eta 46. artikuluetan eta, orobat, 39/2015 Legea 114 c) artikuluan ezarritakoaren arabera. Errekurtso hori aurkezteko, bi hilabeteko epea izango duzu(e), jakinarazpen hau jasotzen duzu(e)n egunaren biharamunetik aurrera zenbatzen hasita.

Dena dela, hala nahi izanez gero eta aurreko paragrafoan adierazitako Administrazioarekiko Auzi Errekurtsoa jarri aurretik, jakinarazten zaizu(e)n berariazko ebazpen honen kontra Berraztertze Errekurtsoa aurkeztu ahal izango diozu(e) eman zuen erakunde berari, eta horretarako hilabeteko epea izango duzu(e), jakinarazpen hau jasotzen duzu(e)n egunaren biharamunetik aurrera zenbatzen hasita.

Hala ere, aipatutako lege-testuaren 124. artikuluko 3. zenbakian adierazten denarekin bat eginez, ezingo da berraztertze beste errekurtsorik aurkeztu berraztertze errekurtsu baten inguruko ebazpen baten aurka.

Hori guztia bat dator urriaren 1ko 39/2015 Legeak, arestian aipaturikoak, bere 123, 124. artikuluetan ezarritakoarekin, baina horrek ez du eragozten zu(en)re eskubideak hobeto defendatzeko egokitzat jotzen duzu(e)n beste edozein errekurtsu jarri ahal izatea.

Zallan, 2023ko abenduaren 15ean. — Alkatea, Unai Diago Santamarina